

KIMU

2016-2017

MIKEL SARRIEGI

1. ANTZERKI FERIAK

FETEN: Feria de teatro de Artes Escénicas para Niños y Niñas.

-2017ko otsailak 15etik 18ra.



- "Alicia en el país de las maravillas". El Retablo.
- "Las aventuras de T.Sawyer". La Teta Calva.
- "Gato Sol". Petiti Caravane.
- "Mon ami le Monstre". Clair de Lune Théâtre.
- "Pulgarcito y sus hermanos". Compañía Ferroviaria Artes Escénicas.
- "Safari". Comediantes La Baldufa.
- "La estación". Zirika zirkus."
- "Serenes". Factoría del Norte

LA MOSTRA D'IGUALADA: 28ª feria de teatro infantil y juvenil.

-2017ko martxoaren 30etik apirilaren 2ra.

-”Euria”. Markeliñe.

-”Libelula”. Toti Toronell.

-”Naufrags”. La industrial teatreara.

-”Cosmix”. Teatre Mòbil.



-”Shake Shake Shake”. Cia. Pakipaya.

-”Amb P de Pallaso”. Sabanni

-”Moby Dick”. Gorakada

-”Handle with care”. Diana Gadish.

-”Los Rabinovich Jêtlak.

-”Bianco”. Teatro Labù.

CIUDAD RODRIGO: Feria de teatro de Castilla y León.

-2017ko abuztuaren 22etik 26ra.



-”Historia de una semilla”. La maquinè.

-”Lullaby”. Godot.

-”The Wolves”. La Fam Cía. De Teatre.

-”Mobilus”. Addaura teatre visual.

-”Lunatics Circus”. Teatro Paraiso.

-”El viejo y el mar”. Títeres de María Parrato.

-”El mundo lirondo”. Spasmo Teatro.

-”Mira! Mira! Mirò mirando!”. Art`Imagem.

-”Up2Down”. Cía.Traspediante/Pistacrato

-”Jardines. (Entrevistas breves en jardines inesperados)”. Impromadrid Teatro

IKUSITAKO BESTE IKUSKIZUNAK

-”Jokoz kanpo” Borobil Teatroa

-”Kaput”. Ganso & Cía

-”Gu”. Borobil Teatroa

-”Crusoe”. Markeliñe

-”Francoren bilobari gutuna”. Arte drama

-”Treblinkara azken tren”. Vaiven

2. FORMAKUNTZA

INPROBISAKETA- SERGIO SANCHEZ ZUZENDARIAREKIN

-Donostia, uztailak 3tik 7 ra.

Sergio Sanchez zuzendari Balentziarrak emandako ikastaro honetan inprobisaketan oinarritutako antzerki teknika landu dugu. 5 egunez aritu gara, goizero 4 orduko klaseak eman ditugu.

Oinarrizko ikastaroa egin genuen. Inprobisaketa estiloari urbilketa bat izan da.

INPROBISAKETA; momentua sortzeko artea

Laburbilduz, ikastaroaren muina, inprobisaketa egin aurretik egin beharreko ariketetan oinrritua egon da. Egunero, inprobisaketak egin ahal izateko behar den gorpuzkera eta pentsakera modu berezia lortzeko helburuarekin egiten genituen hainbat ariketa. Ariketa hauen helburua, proposatutako edozein egoerari buruzko aurre-iritzi, aurre-planteamentu, ideia finko edo aurretik pentsatutako edozein proposamen kanpoan utzi ahal izatea zen.

IMPROVERANO- CARLES CASTILLO

-Valencia, abuztuaren 7tik-12ra

Improverano 2017
Carles Castillo

Curso de 39 h

Desayuno , Comida y Cena
Bebida (Agua)

Catering durante las clases
Infusiones, pastas, zumos y agua

Certificado de asistencia

Seguro de accidentes

Habitaciones compartidas
Ropa de cama incluida

LUNES a VIERNES
10 - 14h / 16 - 19h

SABADO
10 - 13h

Inversión
500€

7 - 12
AGOSTO
MAS del CAPELLA
Olocau (Valencia)

Un curso para compartir experiencias con alumnos de España y fuera de ella
Una semana de convivencia teatral en medio de la naturaleza

Más información: tlf 609 615 235 / carles_castillo@hotmail.com / www.carlesc Castillo.net

Orocao herrian kokatuta dagoen Mas Del Capella baserri eskolan jaso genuen Carles Castilloren eskutik inprobisaketetan oinarritutako antzerkiko ikastaroa.

Sergio Sanchez-en ikastaroaren jarraipen bat izan da. Donostian egindako urbilketaren sakontze bat. 6 egunez aritu gara, egunero 7-8 orduko klaseak jasoaz.

Carles Castilloren hitzek laburbiltzen dute egokien ikastaro honetan egindako lana;

“La improvisación es una fuente de recursos actorales, que si logramos conocerla y ponerla en práctica, conseguiremos una gran soltura en el escenario y fuera de él. Dentro del trabajo actoral es imprescindible conocer las técnicas más recientes para así estar preparados y salir airoso ante cualquier situación, principalmente de las indeseables.

En este curso de técnicas de improvisación, trabajaremos sobre todo las formas, los estados de ánimo, la escucha, los recursos y en profundidad la creatividad espontánea de la que disponemos y que muy pocas veces la ponemos en funcionamiento: por timidez, por no tener confianza, no estar seguro si puede funcionar, entre otros. En el curso se recupera la libertad de crear y proponer con total libertad todo aquello que pasa por la mente y que en la mayoría de los casos no nos atrevemos a mencionar ni siquiera proponer”.

-ZUZENDARITZA TEKNIKAK- MIQUEL APARISI

Miquel Aparisi zuzendari Balentziarrarekin zuzendaritza teknikak landu genituen egun batez. Testu batean oinarriturik, zuzentzeko erabiltzen dituen elementuak landu genituen. Hala nola, testuak berak emandako egoeren analisia, arazoak, eszenen helburuak, eszena bakoitzean agertzen diren helburu txikien biraketak, pertsonaien akzioen analisia etab luze bat.

3. KIMU IKERLANA TXOSTENA

Kimu programan parte hartzearen arrazoi garrantzitsuena jarraitzen saiatu naiz nire ibilbidean. Haur eta gazteekin lan egiten dut aspaldian, beste antzerki talde askorentzat lan egin dut, publiko heldu, nahiz haur eta gazteei zuzendutako antzezpenetan. Adin ezberdineko ume eta gazteen antzerkiko irakasle eta zuzendari ere banaiz. Baina 2013.urtean nire ibilbidean aldaketa bat egiteko beharra sentitu nuen. Orain arte jarraitutako ibilbideari beste ate edo lehio batzuk irekitzeko beharra. Aldaketa honen ondorioetako bat Astrolabium Teatroa antzerki taldea sortzea izan zen, nik neuk egin nahi nituen antzezlanak egiteko, beste espresio bide batzuk jorrazteko eta azken finean, aukera berriak bilatzen saiatzeko.



**E, PETREL! Julio Villarrekin solasean.
Astrolabium teatroa**

Bide berri honetan buru belarri nengoela, KIMU programan aukeratua izan nintzen. Programa honi esker, beste antzerki talde eta artistek zer egiten zuten ikusteko eta formakuntza ezberdinak egiteko aukera sortu zitzaidan.

Haur eta gazteei zuzendutako antzezpenetan zer nolako proposamenak egiten diren, eta zeazki Euskal Herrian talde profesionalek nolako lanak aurkezten dituzten ikertu eta ikusteko aukera izan dut.

Kimu proiektuaren hasieran, ikasturtearen amaieran ikerlan bat egin beharko nuela jakin nuenean, galdera batekin hasi nahi izan nuen proiektu guztia. Galdera hauxe zen; gure partikularitasun batetik abiatuta, nola lortu edozein tokitan interesgarria eta ulergarria izan daitekeen berezko lengoia bat, antzerki obra bat sortzeko garaian. Gure partikularitasun esanguratsuen EUSKARA dela kontutan izanik, nola lortu euskara hutsean egindako antzezlan unibertsal bat sortzea?

Galdera hau buruan nuela abiatu nintzen antzerkiko lehenbiziko feriara, Gijon-eko FETENera hain zuzen ere. Hara iritsi bezain pronto, nire hasierako galdera bertan behera utzi behar izan nuen beste galdera batengatik.

Antzerkiko ferietan oso epe motzean lan asko ikusteko aukera dago. Denak segidan ikusiaz, bata bestarekin konparatzeko aukera ezin hobia izaten da. Konparaketa honetan oso adierazgarria iruditu zitzaidan elementu edo galdera bat agertu zitzaidan. Antzezlan batzuetan ezaugarri hau oso nabarmen agertzen zen, beste batzutan berriz, momentuka bakarrik. Elementu hau INFANTILIZAZIOA zen eta galdera hauxe; haurrentzat zuzentzen diren antzezlanak noiz dira INFANTILAK eta noiz INFANTILIZATUAK?.

Kontzeptu berri honek, galdera sorta bat ekarri zidan burura:

-Zergatik izaten da batzuetan antzezlan bat umeentzat oso erakargarria eta helduentzat berriz aspergarria?


-Zerk egiten du antzerki obra bat erakargarria?

-Zerk egiten du aspergarria?



-Zerk adierazten du antzezlan haurrentzako den eta zerk adierazten digu berriz, haurrentzat egindako antzezlan bat “infantilizatua” dagoen? Zer da infantilizatua egotea?

Ez dira galdera makalak eta erantzuna bilatzea ere ez da erraza izango. Alde batetik, ziurrenik erantzun bakarra ez dagoelako eta bestetik, ikusle bakoitzak bere arrazoiak izango dituelako antzezlan bat infantilizatua dagoen edo ez adierazteko. Kontu honetan, subjektibotasunaren eremuan sartzen bagara ere, nere ustez, badira elementu batzuk, non zuzendari edo aktore profesional batek kriterio bat eta iritzi bat izan beharko lituzkeen.



Hasteko, pertsona bat infantilizatua dagoela esaten denean, haurren jarrerak eta ezaugarriak dituela esaten zaio

Eguneroko bizitzan, badira hurrei oso modu infantilizatuan zuzentzen zaizkien helduak. Haurrek erabiltzen duten ahotsa jarriz, keinu eta erreakzio oso esajeratuak eginaz, hizkuntza maila, era antinaturalean, behar dena baino baxuagoa erabiliz etab. Horrelakoak ikusten ditugunean “ez tontotzat hartu haurra” esaten dugu askotan.

Haurtzat zuzenduak diren antzezlan batzuetan hauxe bera da, hain zuzen ere, ikusitakoa. Aktoreek eta nola ez, zuzendariak, publiko gaztea harrapatu nahian, oso jarrera “erraztua” erakusten dute. Eta emanaldia bukatzerakoan horixe bera da, hain zuzen ere, pentsatzen duzuna; “ez tontotzat hartu haurrak”.

Entonazio esajeratua, aurreikusteko moduko umorea, erritmo azkarregia, erritmo motelagoa erabiliko balute umeak aspertuko direnaren beldur, etab.

Ikuskizun batzuetan elementu hauetako gauza bakarra agertzen da, beste batzuetan berriz, guztiak. Hau gertatzen denean oso emanaldi artifiziale da ikusten dena. Eta pena itzela da ze badira izugarritzko potentziala erakusten duten emanaldiak baina...zuzenduak izan diren moduagatik, antzeztuak izan diren eragatik, guztiz aldentzen zaituzte erakutsi edo transmititu nahi duten horretatik.



Askotan, nere buruari galdetu izan diot; agian nere umetasuna, nere inozentzia guztiz galdurik geratu da azken urte hauetan eta horrek eragozten dit honelako ikuskizunez gozatzea?

Zorionez honetarako erantzuna badut.

Ez, ez eta mila aldiz ez! Nik ez dut nere harritzeko gaitasunik galdu, haurrentzat zuzenduak diren gauza xumeak ikusterako garaian ere nere emozionatzeko ahalmenak hortxe jarraitzen du. 4,5,6 edo 12 urte nituenean bezala. Arazoa ez da zaharregia naizela haurrentzako zuzenduta dagoen antzezlan bat ikusi eta gainera gustokoa izateko. Ez eta mila aldiz ez!

Arazoa, esan bezala, antzezlanak planteatzeko moduan dago. Elementu infantilizatu horiek agertzen ez diren emanalditan, artifizialtasun guztiak desagertzen dira eta ikusten ari zaren hori “benetako” zerbait bihurtzen da. Gero, taldearen arabera, antzezlanak hobea edo txarragoa izango da, politagoa edo itxusiagoa, gaiarekin asmatuko dute edo ez, erritmoa izango du edo ez, baina erakutsi nahi duten hori sinesgarria izango da gutxienez. Eta hori ez da gauza makala.

Esan bezala, zuzendaritza eta aktoreen antzezpenetan agertzen da infantilizazio hau. Antzerkiko obra batek, beste elementu ugari ditu guzti hau janzten duena, argiztapena, eszenografia, jantziak, objektuak, musika... Baina hauen erabileraren analisisan ez naiz sartuko.

Ez garrantziarik ez dutelako, elementu hauetako edozeinen aukeraketa kaskarrak, antzezpen bikain baten oztopo bihurtu daiteke zalantzarik gabe.

Baina antzezpen kaskar bat ez da inoiz salbatuko munduko musika, eszenografi, jantzi edo argiztapen hoberekin, azken finean, askotan esaten dugun bezala, munduko suiziri hoberenek ez dute antzezpen txar bat ona bihurtuko.



Antzezpen batek “benetako” zerbait duela esaten dugunean, zertaz ari gara? Eskolan, antzerkiko klaseak ematen ditudanean, ikasleei askotan zuzentzen diet galdera hau; antzerkia “gezurra” da, konbentzio bat, ikusle bezala, denok dakigu hor agertzen diren pertsonai horiek benetakoak ez direla, aktoreak baizik, baina... zerk egiten du ikusten ari garen hori “egia” edo “benetako” izatea? Zergatik gozatzen dugu ikusten ari garen antzezpen horrekin? Barre egiten dugu, triste jartzen gara, haserretu, azken finean, ikusten ari garen hori sinistu egiten dugu eta ordu betez, momentu horretan benetan gertatzen ari dela sentitzen dugu.

Lehen aipatu dut, ze elementuk egiten dute antzezpen bat ez siniskorra eta kasu askotan infantilizatua izatea. Artifizialtasunak aldendu egiten zaitu eta han gertatzen ari dena ez sinisterra eramaten gaitu. Baina, nola lortu “benetako” antzezpen bat? Nola egin behin eta berriz errepikatu behar den emanaldi batek sortutako momentuan duen freskotasuna edo egia mantentzea?

Galdera honek betidanik jarraitu izan dit nere aktore ibilbidean. Egin ditudan hainbat eta hainbat ikastarotan jorratu izan ditut oso teknika ezberdinak, beroketa ezberdinak, kontzentratzeko modu anitzak, pertsonaiak sortzeko estilo partikularrak... Baina esan beharra daukat, Kimu programari esker, galdera honi erantzun bat emateko teknika ezin hobea aurkitu dudala. Eta hemendik aurrera bide hori jorratzeko asmoa dudala.

11

-Inprobisaketa teknika, KIMU programak emandako harri bitxia. Aurkikuntza bat izan da nere antzerkiko ibilbidean.

Santiago Sanchez eta Carles Castillo zuzendari eta aktoreekin egindako ikastaroek izugarriko bultzada eta oxigeno sarrera itzela eman didate. Aurrerago aipatu dudanez bezala, Santiagorekin egindakoa, inprobisaketa teknikaren hastapeneko ikastaroa izan zen eta guztiz txunditurik utzi ninduen. Lan honen jarraipen bat behar nuela sentitu nuen, eta hara nondik, hilabete beranduago bere kidea den Carles Castillok aste beteko ikastaroa egingo zuela jakin nuen. Ikastaro berri honek Santiagok irekitako bideari jarraipena emango zion.



Carles Castillo, IMPROVERANO 2017

Inprobisaketa teknikari esker, egiten den guztia, nola ez, momentuan asmatutakoa da. Egia da, beste hainbat eta hainbat ikastarotan inprobisaketa landu izan dugula, baina teknika hau, momentu oso konkretutan bakarrik erabiltzeko izan da beti. Hau da, aurretik ikastaroetan landutako beste ezaugarriren bat praktikan jartzeko. Pertsonaien ezaugarriren bat, sentimendu bat, egoera konkretu bat... Baina, lan hau askotan egin izan arren, inoiz ez dut ikasi, inprobisatzera atera aurretiko bertigo horri nola aurre egin eta inprobisaketa hasi aurretik eta inprobisaketan bertan, nondik nora jo eta edozein ezustekoren aurrean irtenbidea nola bilatu.

Ikastaro hauetan berriz, benetan inprobisatzen erakusten dute. Eszenatokira atera aurretiko arau konkretu batzuk irakatsi dizkirate. Lehen aipatu dudan bertigo horren aurrean proposamen konkretuak jaso ditut. Beste hainbat eta hainbat ikastarotan entzundako “entzumena”, “arnasa”, “energia”, “isiltasuna”, “emozioa” eta horrelako beste hainbeste arauen erabilpenari beste zentzu bat eman diote benetan erabilgarriak bihurtuz.

12

Inprobisaketak eskatzen duen ezin besteko gauzetako bat inpultsoari jarraitzea da. Pentsatu gabeko, edo hobeto esanda, prestaturik gabeko inpultso horri kasu egin, eta inongo zentsurarik gabe, indar horri jarraitu. Arriskatu. Garbi dago gero arau batzuk jarraitu beharko direla, bestela, aktore batek baino gehiagok elkarrekin inprobisatzen dutenean, kaosa gertatuko litzatekelako.



Mikel Sarriegi, IMPROVERANO 2017

Laburbilduz, Carles Castillok, “La improvisación. El arte de crear el momento” liburuan dioen bezela:

*“Cuando un improvisador está solo pendiente de lo que ocurre en la escena que está haciendo y pone todo su empeño en ello, con total seguridad que no va a tener tiempo de pensar en otras cosas. De ahí que se deje llevar por los acontecimientos que se produzcan **EN CADA MOMENTO**. De ahí que la paciencia, la generosidad y la escucha se agradecerán para no entorpecer la escena”*

13

Beraz, eta bukatzeko, lan honekin ikasi dudan gauzarik garrantzitsuen, honakoa da. Nahiz eta bukatutako antzezlan bat izan, eta emanaldi errepikatu beharreko ekintza eta hitz guztiak berdinak izan, emanaldi bakoitzean, **MOMENTU ORO**, gertatzen diren nabarduna eta bariazio txikiei irekita eta ernai egoten bagara, emanaldi bakoitzak sortua izan zen momentu bereko “egitasuna” eta freskotasuna berreskuratzea lortuko du. Eta hori da nire ibilbidean beti joratu nahi izan dudana.

Mikel Sarriegi

Hondarribia, 2017ko irailaren 29a

